

EUSKALTZAINDIAREN PARTAIDETZA EUSKARAREKIKO NAFARROAKO FORU PARLAMENTUAN BEREZIKI SORTUTAKO BATZORDEAN

Ekainaren 27an, Euskaltzaindiaren ordezkari bezala izendaturik Jose Maria Satrustegi Akademiaren idazkariak parte hartu zuen. Bertan, "Euskara nafar guztien kultur ondarea" izenburupean, sei puntutan eman zuen bere azalpena.

Hasteko planteamendu orokor batetan euskara interes goreneko ondare bezala kokatu zuen. Bigarrenik, Nafarroako ondare bezala azaldu zuen, historian zehar xehetasun batzuk eginez. Gero, babesteko neurri zenbait aipatu zituen, alderdi guztien ondarea izan behar litzatekeela desiatu, jarraian itun berri bat proposatuz. Seigarren bezala, Europako ondare bezala aldarrikatu zuen, frogatuz, *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian atzerritarrek zer partaidetza duten agertuz.